



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko abuztuaren 2a

84. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa osatzen duten sozietateen administrazio kontseiluek 2011ko ekitaldian egindako bilerei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, San Juan de Dios Ospitaleko jarduera kirurgikoa gutxitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, “Arte talde eta entitateentzako” diru-laguntzen deialdiko balorazio batzordea osatu duten pertsonen buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, San Juan de Dios Ospitaleko obrak finantzatzeko Nafarroako Gobernuak emandako abalari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, C.A. Osasunak Nafarroako Ogasunarekin duen zorra ordaintzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, gure erkidegoko 50 toki entitate populatuenen zorpetze-mailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, mailegu hipotekarioak ordaindu ezinik dabiltzan herritarrei aholku ematen dieten funtzionarioek Nafarroako Foru Berriaren 493. legean ezarritako bidea aholkatu ahal izatearen komenigarritasunari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, 1996tik 2011ra bitartean Ekonomia eta Gizarte Kontseiluan parte hartzeagatiko ordainsari gisa ordaindutako kopuruei eta 2012rako aurreikuspeni buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, “Audenasa. Merkataritza politika” eta “Audenasaren akzioak erosteko maileguaren amortizazioa” kontusailei dagokienez, 2005etik 2011ra ordaindutako kopuruei eta 2012ko ekitaldiko aurreikuspeni buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, Pablo Sarasate Orkestrako gerentearen urteko soldatari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Nafarroako Toki Administrazioa berrantolatzeke Foru Lege proiektu berrian fazeriek duten egoe-rari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, jakitekoa Osasun Departamentuak zer jarrera hartuko duen osasun txartela iraungitzeaz duten aseguruik gabeko pertsona etorkinei dagokienez. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).

- Galdera, jakitekoa non egingen den Iruñeko DBHko ikastetxe berria. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, “Aralur, SL” enpresak gaur egun Ziordian garatzen jarraitzen duen jarduera etete aldera Nafarroako Gobernuak hartutako neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa, normaltasuna berrezartzeko eta 2013ko urtarrilaren 14tik 17ra bitarteko elurte eta euriteen ondorioz izandako kalteengatik udalei eta partikularrei ordaintzeko. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, sorkuntzarako, prestakuntzarako edota abian jartzeko kanpoan kontratatu behar izan diren publizitate, propaganda edo edonolako kanpainetan eginiko gastuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, Gobernuak egin dituen gestioei buruzkoa, Parlamentuak eginiko eskari bat betetze aldera. Horren bidez, eskatzen zen tresna informatiko bat finantzatu eta garatzeko, kontabilitate- nahiz aurrekontu-kontrolkoarekin uztarturik egon beharko litzatekeena, toki korporazioei beren udal inbentarioak egitea ahalbidetzeko. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- Galdera, Foru Administrazioiko goi kargudunei antzinatasun sari gisa ordaindutako kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (35. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Erantza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoan aurreikusitako Lankidetzatza Batzordeak eginiko bilereiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (36. or.).
- Galdera, Estatuaren eta Nafarroaren arteko Transferentzien Batzordeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (36. or.).
- Galdera, Nortasun Agiri Nazionala eta gidabaimena Nafarroako bi hizkuntza ofizialetan egiteari buruz Nafarroako Parlamentuak onetsitako erabakia Espainiako Gobernuak betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (37. or.).
- Galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak aurreikusita ote duen maila goreneko bilerarik egitea Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuarekin. Foru Diputazioaren erantzuna (38. or.).
- Galdera, ospitaleko sukaldeen kudeaketa pribatizatuaren ondorioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (38. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa osatzen duten sozietateen administrazio kontseiluek 2011ko ekitaldian egindako bilerei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana Beltrán Villalba andreak egindako galderaren erantzuna, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa osatzen duten sozietateen administrazio kontseiluek 2011ko ekitaldian egindako bilerei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2012ko abenduaren 10eko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoko sozietateetako administrazio kontseiluen bilerei buruz idatziz erantzuteko egindako galderari

dagokionez (8-12/PES-180), hau erantzun du Nafarroako Gobernuako Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Kontseilariak:

1. Zenbat bilera egin zituzten 2011ko ekitaldian CPENeko sozietateetako administrazio kontseiluek eta CPENeko Administrazio Kontseiluak berak, eta "kargudun politikoak edo kargudun politiko ohiak" bilera horietan izan ziren ala ez.

NAFARROAKO ENPRESA KORPORAZIO PUBLIKOA, S.M.P. (CPEN)

a) "Kargudun politikoak edo kargudun politiko ohiak": Álvaro Miranda Simavilla jauna, Anai Astiz Medrano jauna eta Koldo Amézketa Díaz jauna (guztiak Administrazio Kontseiluko kide izan ziren 2011ko ekitaldi osoan).

b) Zenbat bilera egin zituen 2011ko ekitaldian Administrazio Kontseiluak, zein egunetan egin zituen eta "kargudun politikoak edo kargudun politiko ohiak" bilera horietan izan ziren ala ez:

	politiko ohiak	zen	izan
2011/03/02	- Alvaro Miranda Simavilla jn. - Anai Astiz Medrano jn. - Koldo Amézketa Díaz jn.	X X x	
2011/03/08	- Alvaro Miranda Simavilla jn. - Anai Astiz Medrano jn. - Koldo Amézketa Díaz jn.	X X x	
2011/03/31	- Alvaro Miranda Simavilla jn. - Anai Astiz Medrano jn. - Koldo Amézketa Díaz jn.	X X x	
2011/09/29	- Alvaro Miranda Simavilla jn. - Anai Astiz Medrano jn. - Koldo Amézketa Díaz jn.	X X x	
2011/10/25	- Alvaro Miranda Simavilla jn. - Anai Astiz Medrano jn. - Koldo Amézketa Díaz jn.	X X x	
2011/12/19	- Alvaro Miranda Simavilla jn. - Anai Astiz Medrano jn. - Koldo Amézketa Díaz jn.	X X	X

Administrazio Kontseiluaren bilerak, guztira: 6

CPENen SARTUTA DAUDEN SOZIEtATE PUBLIKOAK

(1) NAVARRA DE SUELO y VIVIENDA, S.A. NASUINSA

(* Viviendas de Navarra, S.A. sozietate irenslari eta bat-egite prozesutik sortutako Navarra de Suelo y Vivienda, S.A.ri dagozkien datuak)

a) "Kargudun politikoak edo kargudun politiko ohiak": Amelia Salanueva Murguialday andrea,

María Isabel García Malo andrea eta Yolanda Barcina Angulo andrea (horiek Administrazio Kontseiluko kide izan ziren 2011ko azaroaren 22ra arte) eta Anai Astiz Medrano jauna eta Elena Torres Miranda andrea (2011ko azaroaren 22tik aurrera).

b) Zenbat bilera egin zituen 2011ko ekitaldian Administrazio Kontseiluak, zein egunetan egin zituen eta "kargudun politikoak edo kargudun politiko ohiak" bileretan izan ziren ala ez:

	politiko ohiak	zen	izan
2011/03/30	- Amelia Salanueva Murguialday and. - María Isabel García Malo and. - Yolanda Barcina Angulo and.	X x	x
2011/12/21	- Anai Astiz Medrano jn. - Elena Torres Miranda and.	X	X

Administrazio Kontseiluaren bilerak, guztira: 2

(2) AGENCIA NAVARRA DEL TRANSPORTE Y LA LOGÍSTICA, S.A. – ANL

(* Ciudad del Transporte de Pamplona, S.A. sozietate irenslari eta bat-egite prozesutik sortutako Agencia Navarra del Transporte y la Logística, S.A.ri dagozkien datuak)

a) "Kargudun politikoak edo kargudun politiko ohiak": Laura Alba Cuadrado andrea (Administra-

zio Kontseiluko kide izan zen 2011ko azaroaren 22ra arte) eta Anai Astiz Medrano jauna (Administrazio Kontseiluko kide 2011ko azaroaren 22tik aurrera).

b) Zenbat bilera egin zituen Administrazio Kontseiluak 2011ko ekitaldian, zein egunetan egin zituen eta "kargudun politikoak edo kargudun politiko ohiak" bileretan izan ziren ala ez:

	politiko ohiak	zen	izan
2011/03/01	Laura Alba Cuadrado and.		x
2011/03/18	Laura Alba Cuadrado and.	x	
2011/05/03	Laura Alba Cuadrado and.	x	
2011/05/03	Laura Alba Cuadrado and.	x	
2011/07/28	Laura Alba Cuadrado and.	x	
2011/12/21	Anai Astiz Medrano jn.	x	

Administrazio Kontseiluaren bilerak, guztira: 6

(3) CIUDAD AGROALIMENTARIA DE TUDELA, S.L.

(* Administrazio Kontseiluko kideen karguek ez zuten ordainsaririk 2011ko ekitaldian)

a) "Kargudun politikoak edo kargudun politiko ohiak": Begoña Sanzberro Iturriria andrea (Administrazio Kontseiluko kidea izan zen 2011ko urria-

ren 18ra arte) eta Lourdes Goicoechea Zubelzu andrea eta José Javier Echarte Echarte jauna (Administrazio Kontseiluko kideak 2011ko urriaren 18tik aurrera).

b) Zenbat bilera egin zituen Administrazio Kontseiluak 2011ko ekitaldian, zein egunetan egin zituen eta "kargudun politikoak edo kargudun politiko ohiak" bileretan izan ziren ala ez:

	politiko ohiak	zen	izan
2011/03/29	Begoña Sanzberro Iturriria and.	x	
2011/10/18	- Lourdes Goicoechea Zubelzu and. - José Javier Echarte Echarte jn.	X x	
2011/10/28	- Lourdes Goicoechea Zubelzu and. - José Javier Echarte Echarte jn.	X x	
2011/11/17	- Lourdes Goicoechea Zubelzu and. - José Javier Echarte Echarte jn.	X x	
2011/12/20	- Lourdes Goicoechea Zubelzu and. - José Javier Echarte Echarte jn.	X x	

Administrazio Kontseiluaren bilerak, guztira: 5

(4) INSTITUTO NAVARRO DE TECNOLOGÍAS E INFRAESTRUCTURAS AGROALIMENTARIAS, S.A. – INTIA.

(* Riegos de Canal de Navarra, S.A. sozietate irenslari eta bat-egite prozesutik sortutako Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias, S.A.ri dagozkien datuak)

a) "Kargudun politikoak edo kargudun politiko ohiak": Begoña Sanzberro Iturriria andrea eta José

Javier Echarte Echarte jauna (Administrazio Kontseiluko kideak izan ziren 2011ko urriaren 18ra arte) eta Lourdes Goicoechea Zubelzu andrea (Administrazio Kontseiluko kidea 2011ko urriaren 18tik aurrera).

b) Zenbat bilera egin zituen Administrazio Kontseiluak 2011ko ekitaldian, zein egunetan egin zituen eta "kargudun politikoak edo kargudun politiko ohiak" bileretan izan ziren ala ez:

	politiko ohiak	zen	izan
2011/03/30	- Begoña Sanzberro Iturriria and. - José Javier Echarte Echarte jn.	X x	
2011/10/18	Lourdes Goicoechea Zubelzu and.	x	
2011/10/20	Lourdes Goicoechea Zubelzu and.	x	
2011/11/21	Lourdes Goicoechea Zubelzu and.	x	

Administrazio Kontseiluaren bilerak, guztira: 4

GESTIÓN AMBIENTAL DE NAVARRA, S.A. –
GAN

(* Gestión Ambiental Viveros y Repoblaciones de Navarra, S.A. sozietate irenslari eta bat-egite prozesutik sortutako Gestión Ambiental de Navarra, S.A.ri dagozkien datuak)

a) “Kargudun politikoak edo kargudun politiko ohiak”: Lourdes Goicoechea Zubelzu andrea (Administrazio Kontseiluko kidea 2011ko irailaren 13tik aurrera).

b) Zenbat bilera egin zituen Administrazio Kontseiluak 2011ko ekitaldian, zein egunetan egin zitu- en eta “kargudun politikoak edo kargudun politiko ohiak” bileretan izan ziren ala ez:

	politiko ohiak	zen	izan
2011/03/25	- (*1)		
2011/05/04	- (*1)		
2011/10/18	Lourdes Goicoechea Zubelzu and.	x	
2011/10/28	Lourdes Goicoechea Zubelzu and.	x	

(*1) Administrazio Kontseiluak 2011ko martxoaren 25ean eta apirilaren 4an egindako bileretan Administrazio Kontseiluko kideetako inor ez zen “kargudun politikoa edo kargudun politiko ohia”.

Administrazio Kontseiluaren bilerak, guztira: 4

(6) NAVARRA DE INFRAESTRUCTURAS
LOCALES, S.A. – NILSA.

a) “Kargudun politikoak edo kargudun politiko ohiak”: Amelia Salanueva Murguialday andrea, Jesús María García Antón jauna, Luis María Sada Enériz jauna, Francisco Javier Sanz Carramiñana jauna eta Alfonso Ucar Zaratiegui jauna (horiek guztiak Administrazio Kontseiluko kideak izan ziren 2011ko azaroaren 22ra arte), Gregorio Galilea Arazuri jauna, Jesús Antonio Esparza Iriarte jauna eta José María Irisarri Ollacarizquieta jauna

(horiek guztiak Administrazio Kontseiluko kideak izan ziren 2011ko ekitaldi osoan), eta Roberto Jiménez Alli jauna, Francisco Javier Pérez Arregui jauna, Mariano Herrero Ibañez jauna (Administrazio Kontseiluko kideak 2011ko azaroaren 22tik aurrera).

b) Zenbat bilera egin zituen Administrazio Kontseiluak 2011ko ekitaldian, zein egunetan egin zitu- en eta “kargudun politikoak edo kargudun politiko ohiak” bileretan izan ziren ala ez:

	politiko ohiak	zen	izan
2011/03/22	- Amelia Salanueva Murguialday and. - Jesús María García Antón jn. - Luis María Sada Enériz jn. - F. Francisco Javier Sanz Carramiñana jn. - Alfonso Ucar Zaratiegui jn. - Gregorio Galilea Arazuri jn. - Jesús Antonio Esparza Iriarte jn. - José María Irisarri Ollacarizquieta jn.	X X X x	X X X x

Administrazio Kontseiluaren bilerak, guztira: 1

(7) EMPRESA NAVARRA DE ESPACIOS CULTURALES, S.A. – ENEC.

(* Baluarte Palacio de Congresos y Auditorio de Navarra, S.A. sozietate irenslari eta bat-egite prozesutik sortutako Empresa Navarra de Espacios Culturales, S.A.ri dagozkien datuak)

a) "Kargudun politikoak edo kargudun politiko ohiak": Juan Ramón Corpas Mauleón jauna (Administrazio Kontseiluko kidea izan zen 2011ko urriaren 18ra arte) eta Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jauna (biak ere Administrazio Kontseiluko kideak 2011ko urriaren 18tik aurrera).

nistrazio Kontseiluko kidea izan zen 2011ko urriaren 18ra arte) eta Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jauna eta José Iribas Sánchez de Boado jauna (biak ere Administrazio Kontseiluko kideak 2011ko urriaren 18tik aurrera).

b) Zenbat bilera egin zituen Administrazio Kontseiluak 2011ko ekitaldian, zein egunetan egin zituen eta "kargudun politikoak edo kargudun politiko ohiak" bileretan izan ziren ala ez:

	politiko ohiak	zen	izan
2011/02/22	Juan Ramón Corpas Mauleón jn.	x	
2011/05/04	Juan Ramón Corpas Mauleón jn.	x	
2011/09/28	Juan Ramón Corpas Mauleón jn.	x	
2011/10/18	- Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jn. - José Iribas Sánchez de Boado jn.	X x	
2011/11/30	- Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jn. - José Iribas Sánchez de Boado jn.	X	x

Administrazio Kontseiluaren bilerak, guztira: 5

(8) NAVARRA DE DEPORTE Y OCIO, S.L. – NDO.

(* Circuito Los Arcos, S.L. sozietate irenslari eta bat-egite prozesutik sortutako Navarra Deporte y Ocio, S.L.ri dagozkien datuak)

a) "Kargudun politikoak edo kargudun politiko ohiak": José Javier Esparza Abaurrea jauna (Administrazio Kontseiluko kide izan zen 2011ko azaroaren 22ra arte) eta Elena Torres Miranda andrea eta Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jauna (Administrazio Kontseiluko kideak 2011ko azaroaren 22tik aurrera).

ren 22ra arte) eta Elena Torres Miranda andrea eta Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jauna (Administrazio Kontseiluko kideak 2011ko azaroaren 22tik aurrera).

b) Zenbat bilera egin zituen Administrazio Kontseiluak 2011ko ekitaldian, zein egunetan egin zituen eta "kargudun politikoak edo kargudun politiko ohiak" bileretan izan ziren ala ez:

	politiko ohiak	zen	izan
2011/03/18	José Javier Esparza Abaurrea jn.	x	
2011/05/03	José Javier Esparza Abaurrea jn.	x	
2011/12/02	- Elena Torres Miranda and. - Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jn.	X	x
2011/12/19	- Elena Torres Miranda and. - Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jn.	X x	

Administrazio Kontseiluaren bilerak, guztira: 4

(9) CENTRO NAVARRO DE AUTOAPRENDIZAJE DE IDIOMAS, S.A. – CNAI

a) “Kargudun politikoak edo kargudun politiko ohiak”: Alberto Catalán Higuera jauna (Administrazio Kontseiluko kidea izan zen 2011ko urriaren 17ra arte) eta José Iribas Sánchez de Boado

jauna (Administrazio Kontseiluko kidea 2011ko urriaren 17tik aurrera).

b) Zenbat bilera egin zituen Administrazio Kontseiluak 2011ko ekitaldian, zein egunetan egin zituen eta “kargudun politikoak edo kargudun politiko ohiak” bileretan izan ziren ala ez:

	politiko ohiak	zen	izan
2011/02/23	Alberto Catalán Higuera jn.	x	
2011/03/23	Alberto Catalán Higuera jn.		x
2011/10/17	José Iribas Sánchez de Boado jn.	X	
2011/11/09	José Iribas Sánchez de Boado jn.	X	

Administrazio Kontseiluaren bilerak, guztira: 4

(10) NAVARRA DE SERVICIOS Y TECNOLOGÍAS, S.A. – NASERTIC.

(* Navarra de Servicios, S.A. sozietate irenseleari eta bat-egite prozesutik sortutako Navarra de Servicios y Tecnologías, S.A. sozietateari dagozkion datuak)

a) “Kargudun politikoak edo kargudun politiko ohiak”: Javier Caballero Martínez jauna (Adminis-

trazio Kontseiluko kide izan zen 2011ko irailaren 13ra arte), Roberto Jiménez Alli jauna (Administrazio Kontseiluko kidea 2011ko irailaren 13tik aurrera) eta Marta Vera Janín andrea (Administrazio Kontseiluko kidea 2011ko urriaren 27tik aurrera).

b) Zenbat bilera egin zituen Administrazio Kontseiluak 2011ko ekitaldian, zein egunetan egin zituen eta “kargudun politikoak edo kargudun politiko ohiak” bileretan izan ziren ala ez:

	politiko ohiak	zen	izan
2011/03/15	Javier Caballero Martínez jn.	x	
2011/10/17	- Roberto Jiménez Alli jn. - Marta Vera Janín and.	X x	
2011/11/22	- Roberto Jiménez Alli jn. - Marta Vera Janín and.	X x	

Administrazio Kontseiluaren bilerak, guztira: 3

(11) CENTRO EUROPEO DE EMPRESAS E INNOVACIÓN, S.L. – CEIN.

(*Bat-egite prozesutik sortutako Centro Europeo de Empresas e Innovación de Navarra, S.L. sozietateari dagozkion datuak; ez dago sozietate irenslarik, sozietate berria sortu da)

a) “Kargudun politikoak edo kargudun politiko ohiak”: Lourdes Goicoechea Zubelzu andrea eta Marta Vera Janín andreak (Administrazio Kontseiluko kideak 2011ko urriaren 18tik aurrera).

b) Zenbat bilera egin zituen Administrazio Kontseiluak 2011ko ekitaldian, zein egunetan egin zituen eta “kargudun politikoak edo kargudun politiko ohiak” bileretan izan ziren ala ez:

	politiko ohiak	zen	izan
2011/07/19	- (*1)		
2011/10/18	Lourdes Goicoechea Zubelzu and. Marta Vera Janín and.	X X	
2011/10/28	Lourdes Goicoechea Zubelzu and. Marta Vera Janín and.	X	X
2011/12/13	Lourdes Goicoechea Zubelzu and. Marta Vera Janín and.	X X	

(*1) Administrazio Kontseiluak 2011ko uztailaren 19an egindako bileran Administrazio Kontseiluko kideetako inor ez zen “kargudun politikoa edo kargudun politiko ohiak”.
Administrazio Kontseiluaren bilerak, guztira: 4

(12) TRABAJOS CATASTRALES, S.A. – TRACASA.

a) “Kargudun politikoak edo kargudun politiko ohiak”: Álvaro Miranda Simavilla jauna (Administrazio Kontseiluko kidea izan zen 2011ko ekitaldi osoan).

b) Zenbat bilera egin zituen Administrazio Kontseiluak 2011ko ekitaldian, zein egunetan egin zituen eta “kargudun politikoak edo kargudun politiko ohiak” bileretan izan ziren ala ez:

	politiko ohiak	zen	izan
2011/02/18	Álvaro Miranda Simavilla	x	
2011/05/03	Álvaro Miranda Simavilla	x	
2011/07/18	Álvaro Miranda Simavilla	x	
2011/10/18	Álvaro Miranda Simavilla	x	
2011/10/28	Álvaro Miranda Simavilla	x	
2011/12/13	Álvaro Miranda Simavilla	x	

Administrazio Kontseiluaren bilerak, guztira: 6

(13) SOCIEDAD DE DESARROLLO DE NAVARRA, S.L. – SODENA.

(*Bat-egite prozesutik sortutako Sociedad de Desarrollo de Navarra, S.L. sozietateari dagozkion datuak; ez dago sozietate irenslarik, sozietate berria sortu da)

a) "Kargudun politikoak edo kargudun politiko ohiak": Lourdes Goicoechea Zubelzu andrea eta

Álvaro Miranda Simavilla jauna (Administrazio Kontseiluko kideak 2011ko urriaren 18tik aurrera).

b) Zenbat bilera egin zituen Administrazio Kontseiluak 2011ko ekitaldian, zein egunetan egin zitu en eta "kargudun politikoak edo kargudun politiko ohiak" bileretan izan ziren ala ez:

	politiko ohiak	zen	izan
2011/07/01	- (*1)		
2011/10/18	- Lourdes Goicoechea Zubelzu and. - Álvaro Miranda Simavilla jn.	X X	
2011/11/16	Lourdes Goicoechea Zubelzu and. Álvaro Miranda Simavilla jn.	X x	
2011/12/09	- Lourdes Goicoechea Zubelzu and. - Álvaro Miranda Simavilla jn.	X X	
2011/12/14	- Lourdes Goicoechea Zubelzu and. - Álvaro Miranda Simavilla jn.	X X	

(*1) Administrazio Kontseiluak 2011ko uztailaren 1ean egindako bileran Administrazio Kontseiluko kideetako inor ez zen "kargudun politikoa edo kargudun politiko ohiak".

Administrazio Kontseiluaren bilerak, guztira: 5

2.- Hirugarren galderari dagokionez, administrazio kontseiluetako kideak ziren aldetik 2011n kontraprestazio ekonomikoa jaso zuten pertsonen zerrenda erantsi dugu, 2012ko azaroaren 6an PES 137 galderari emandako erantzuna errepikatuz.

Esan beharra dago, halaber, Nafarroako Gobernuaren 2011ko urriaren 19ko Erabakian ezarritakoarekin bat etorritik, egun horretan dieten ordainketa eten zitzaiela Nafarroako Gobernuan goi-kargua izan eta CPENen Administrazio Kon-

tseiluko edo korporazio horretako enpresa publikoen administrazio kontseiluren bateko kideak ziren guztiei.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 8an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, San Juan de Dios Ospitaleko jarduera kirurgikoa gutxitzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak San Juan de Dios Ospitaleko jarduera kirurgikoa gutxitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2012ko abenduaren 18ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak San Juan de Dios Ospitaleko jarduera kirurgikoa gutxitzeari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-000183), hau erantzun du Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak:

1.-Zeintzuk dira San Juan de Dios Ospitalean egiten ez diren operazio-motak? Zenbat, espezialitate bakoitzeko?

Gaur egun San Juan de Dios Ospitalean espezialitate hauetako operazioak egiten dira: kirurgia baskularra, oftalmologia, kirurgia orokorra, plastikoa, otorrinolaringologia, urologia, eta kirurgia ortopedikoa eta traumatologia (KOT).

Ubarmin erietxean ebakuntza-gela berriak ireki direnez, O-NOZek bere gain hartu ahal izanen ditu kirurgia ortopedikoaren eta traumatologiaren arloan San Juan de Dios Ospitalean egiten ziren kirurgia-lan arrunt guztiak.

Gainerako espezialitateetan O-NOZek jarraituko du ospitale horretara jarduera kirurgikoa bideratzen, baina ebakuntza gutxiago egiten dira espezialitate bakoitzeko. Oraintxe ezin dugu zehaztu zenbat izanen diren espezialitate bakoitzeko, zentroarekin hitz

egiten ari garelako oraindik, bi alderdien onerako izanen den akordioaren bila. Negoziazioen emaitzen arabera kopuru desberdinak atera daitezke.

Non egiten da orain arte San Juan de Dios Ospitalean egin den kirurgia-jarduera? Aurreikuspenen arabera, zein izanen da jarduera horri aurre egin ahal izateko baliabide-igoera?

Kirurgia ortopedikoaren eta traumatologiaren (KOT) espezialitatean, ohiko kirurgia-jarduera gehienak Nafarroako Ospitaleguneko Ubarmin erietxean egiten dira, 4 ebakuntza-gela gehiago ireki direlako.

Bestalde, KOT jarduera guztiak Ubarminen metaturik, NO-Ako eta NO-Bko ebakuntza-gelak berrantolatuta egiten dira eta, horrenbestez, bi ospitaleetan hainbat kirurgia saio geratuko dira libre beste espezialitate batzuetan jarduteko. Aurreikusiten da, ildo horretan, Nafarroako Ospitalegunean oftalmologiako operazioen kopuruak gora egiten duela, eta, beraz, halako operazio gutxiago bideratuko direla San Juan de Dios Ospitalera.

Horretarako, ordea, erizainez hornitu beharko dira kirurgia saio horiek; hain zuzen ere 5 erizain behar dira NO-An eta 6 NO-Bn.

Abenduaren 10a baino geroago egiteko aurreikusitako zenbat operazio utzi dira bertan behera? Esleitu al zaie jadanik tokia eta eguna?

86 operazio desprogramatu dira; berriro programatu dira, lehentasunez programatu ere, egunotan egiten ari den kirurgia-programazioko lehenbiziko saioan.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 9an

Osasun kontseilaria: Marta Vera Janin

Galdera, “Arte talde eta entitateentzako” diru-laguntzen deialdiko balorazio batzordea osatu duten pertsonen buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Aitziber Sarasola Jaca andreak “Arte talde eta entitateentzako” diru-laguntzen deialdiko balorazio batzordea osatu duten pertsonen buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2012ko abenduaren 10eko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitziber Sarasola Jaca andreak “arte talde eta entitateentzako” 2012ko diru-laguntzen deialdiko balorazio batzordea osatu duten pertsonen buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-00178), hau erantzun du Nafarroako Gobernuak Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak emandako abenduaren 28ko 80/2011 Foru Aginduaren bidez, “arte talde eta entitateentzako” 2012ko diru-laguntzen deialdiaren oinarri arautzaileak onetsi ziren, gastua baimendu zen eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragarkia jartzeko agindu zen.

“Arte talde eta entitateentzako” 2012ko diru-laguntzen deialdiko ebaluazio batzordeko kideak:

Batzorde administratiboa:

- Cristina Urdániz Ezcurra andrea, Kultur Ekintza Zerbitzuko zuzendaria, batzordeburu ariko da.
- Amaya Mena Zabala andrea, Arte Sorkuntza-ren, Ekoizpenaren eta Zerbitzuen Ataleko burua, idazkari ariko da.
- Yolanda Osés Pérez andrea, Kulturaren Hedapenaren Ataleko burua, batzordekide ariko da.

- Patrick Ullate García jauna, Arte Sorkuntza-ren, Ekoizpenaren eta Zerbitzuen Ataleko burua, batzordekide ariko da.

Batzorde artistikoa:

- Yolanda Osés Pérez andrea, Kulturaren Hedapenaren Ataleko burua, batzordeburu ariko da.
- Nieves Beloqui Ros andrea batzordekide ariko da.
- Marcos Andrés Vierge jauna batzordekide ariko da.
- Tomás Muñoz Asensio jauna batzordekide ariko da.

Batzorde ekonomikoa:

- M. Camino Barcenilla andrea, Sustapenaren, Azterlanen eta Garapen Estrategikoaren Ataleko burua, batzordeburu ariko da.
- Fernando Vallejo Torrecilla jauna, Aurrekontu eta Kudeaketa Ekonomikoaren Ataleko burua, batzordekide ariko da.
- Eurne Mezquiriz Eleiza andrea batzordekide ariko da.

Batzorde soziala:

- Amaya Mena Zabala andrea, Arte Sorkuntza-ren, Ekoizpenaren eta Zerbitzuen Ataleko burua, batzordeburu ariko da.
- Koldo Sebastián Del Cerro jauna batzordekide ariko da.
- Esperanza Soroa Morrás andrea batzordekide ariko da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko urtarrilean

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, San Juan de Dios Ospitaleko obrak finantzatzeko Nafarroako Gobernuak emandako abalari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galdera, San Juan de Dios Ospitaleko obrak finantzatzeko Nafarroako Gobernuak emandako abalari buruzkoa, Foru Diputazioak emandako erantzuna. Galdera argitaratu zen 2012ko abenduaren 18ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak San Juan de Dios Ospitalearen handitzearekin zerikusia duten zenbait alderdiri buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-182), hau erantzun du Nafarroako Gobernuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

Zer espektatiba zituen zentroak, jarduerari dagokionez, obra horiek egiteko?

Zentroak obra horiei ekiteko zituen espektatibak, jarduerari dagokionez, ordura arte izandako

jardueraren historikoan oinarritzen ziren, gorantz edo beherantz gerta zitezkeen aldaketak kontuan hartu gabe.

Ba al zuten Nafarroako Gobernuaren konpromiso espresen bat?

San Juan de Dios Ospitaleak, eskura dagoen informazioaren arabera, inbertsioa egiteko behar den finantzaketa lortzen laguntzeko konpromisoa besterik ez zuen jaso.

Zer berme ditu Nafarroako Gobernuak obraren zati baten abala eman izateko?

Emandako abalaren bermeei dagokionez, hau esan behar dugu: NAFINCOren Abalen Programa Orokorreko inbertsioetarako gainerako abaletan bezala, ez da berme gehiago eskatzen finantzerakunde mailegu-emaeleek eskatutakoez gain; hots, bankuekin partekatzen dira haiek lortu dituzten bermeak.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 11n

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko Kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, C.A. Osasunak Nafarroako Ogasunarekin duen zorra ordaintze-ari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bikendi Barea Aiestaran jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, C.A. Osasunak Nafarroako Ogasunarekin duen zorra ordaintzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2012ko abenduaren 18ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaran jaunak Club Atlético Osasunak Nafarroako Ogasunarekin duen zorrari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-181), hau erantzun du Nafarroako Gobernuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Kontseilariak:

1.- Nafarroako Foru Komunitateko Diru-bilketari buruzko Erregelamendua arautzen duen uztailaren 2ko 177/2001 Foru Dekretuaren 49. artikuluan xedatutakoarekin bat, Nafarroako Gobernuaren 2012ko abenduaren 12ko Erabakiaren bidez, tributu-zorren ordainketa geroratzea onartu zitzaion Club Atlético Osasunari.

2.- Tributu-zorrek geroratu edota zatikatu daitezkeen onartzeari dagokionez Foru Komunitatean indarra duten arauak bete behar dira: Tributu buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorra, Diru-bilketari buruzko Erregelamendua arautzen duen uztailaren 2ko 177/2001 Foru Dekretua, eta, zenbait kasutan, ekainaren 22ko 3/2000 Foru Legea, krisian dauden enpresak salbata eta berregituratzeko laguntzei buruzkoa.

Nafarroako Zerga Ogasunari zor zaizkion diru kopuruen ordainketa geroratzea zilegi izan daiteke, zordunari bere ekonomia eta finantza egoerak, behin-behinean, garaiz ordaintzea eragozten badio. "Behin-behinean" esamoldeak adierazten

duenez, egoera hori iragankorra da, aldi baterakoa.

Geroratzearen baldintzak erabakitzekeo garaian behar bezala haztatu behar dira batetik gastu publikoei eusteko interes orokorra eta bestetik zergadunaren behin-behineko likidezia falta.

Ildo horretan komeni da gogora ekartzea arauak ez duela zehazten zorra noiz arte geroratzea onar daitekeen, eta ez du halakorik egiten, hain zuzen ere, kasu bakoitzaren inguruabarretara moldatzeko behar den malgutasuna eman nahi dielako administrazio-organo eskudunei. Baina horrek ez du esan nahi edozein epe ezar daitekeenik; aitzitik, lege-testuan badira printzipioak, zuhurtzaren araberako muga zuzenak eta arrazoituak jarzen dizkieten baldintza horren zehaztapenari.

3.- Tributu buruzko Foru Lege Orokorren 105.1. e) artikuluan ezartzen da Tributu Administrazioak bere eginkizunetan lortutako datuak, txostenak edo aurrekariak isilpean gordetzekoak direla eta ezin izanen direla erabili tributuak edo baliabideak, zeinen kudeaketa agintzen zaion, benetan aplikatzeko ez bada, eta ezin izanen zaizkiela hirugarrenei laga edo jakitera eman, lagapenak ondokoak xedetzat dituenen salbu, besteak beste: (...) Elkarlana parlamentuko ikerketa batzordearekin, legez ezarritako esparruaren barnean.

Informazio eskaera honek horrelako xederik ez duenez, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak ezin du jakinarazi edo azaldu tributu-kudeaketaren arloko bere eginkizunetan eskuratutako datu edo informaziorik.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 14an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, gure erkidegoko 50 toki entitate populatueneen zorpetze-mailari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak gure erkidegoko 50 toki entitate populatueneen zorpetze-mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2012ko abenduaren 21eko 112. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak honako gal-

dera hau egin du, idatziz erantzuteko (8-12/PES-00184):

Gure erkidegoko 50 toki entitate jendetsuenen zorpetze-mailaren zerrenda eskatzen dugu, ehuneoak eta zenbateko garbiak jasoko dituen.

Galderan eskatutako informazioa bidali du Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariak.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 16an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilaria: José Javier Esparza Abaurrea

50 TOKI ENTITATE JENDETSUENEN ZORPETZE-MAILA ETA ZOR BIZIA

	2011				2010			
	Población 2011	% Nivel endeudamiento Consolidado 2011	Deuda viva consolidada 2011	% DV / IC (consolidado) 2011	Población 2010	% Nivel endeudamiento consolidado 2010	Deuda viva consolidada 2010	% DV / IC (consolidado) 2010
2010000 Pamplona	197.932	4,30	105.129.602,48	56,07	197.488	3,54	96.241.827,04	52,64
2320000 Tudela	35.429	7,29	42.657.933,16	124,53	35.268	4,92	45.085.751,00	124,32
9010000 Barañáin	21.552	2,13	2.490.333,60	16,93	21.705	2,09	2.768.906,85	18,31
0600000 Burlada	18.195	6,62	SIN DATO	SIN DATO	18.389	6,52	2.733.340,96	17,74
0860000 Egüés	16.222	3,63	SIN DATO	SIN DATO	14.354	4,87	300.572,76	3,48
0970000 Estella-Lizarra	14.251	2,81	6.770.935,12	57,99	14.207	3,07	6.980.751,52	59,44
9070000 Zizur Mayor	13.871	0,00	0,00	0,00	13.316	0,00	0,00	0,00
2270000 Tafalla	11.390	7,10	5.288.149,20	51,01	11.413	6,44	5.296.659,17	47,76
0160000 Ansoáin	10.776	2,91	1.506.484,80	19,68	10.603	2,70	1.698.070,45	21,96
2580000 Villava	10.487	6,39	SIN DATO	SIN DATO	10.568	6,05	3.710.741,84	47,91
9030000 Berriozar	8.931	1,37	SIN DATO	SIN DATO	9.034	1,22	1.040.536,12	14,53
0770000 Corella	8.123	7,99	7.155.713,16	107,12	8.076	5,82	7.515.767,88	106,09
0500000 Baztan	8.075	11,95	8.354.152,75	117,48	8.081	10,40	8.996.496,49	123,48
0720000 Cintruénigo	7.777	6,12	SIN DATO	SIN DATO	7.740	5,76	5.982.787,80	79,42
0100000 Altsasu/Alsasua	7.655	3,78	2.526.303,10	38,76	7.698	3,20	2.714.853,66	39,39
0230000 Aranguren	7.586	0,00	0,00	0,00	7.317	0,00	0,00	0,00
1220000 Huarte	6.309	1,17	10.881.510,84	193,33	6.095	1,67	10.562.391,20	171,47
2150000 San Adrián	6.263	10,11	6.256.048,07	122,67	6.293	8,08	6.636.849,52	125,94
2020000 Peralta	6.080	8,76	4.626.393,60	93,56	6.066	7,72	4.569.032,52	88,91
9020000 Berrioplano	5.366	5,81	6.248.975,30	182,15	4.852	0,50	5.773.006,64	154,52
0700000 Castejón	4.316	16,32	10.215.195,12	174,05	4.306	14,57	10.912.308,26	178,56
2510000 Viana	4.018	4,65	1.662.085,88	40,61	3.937	4,50	1.827.555,40	45,03
0680000 Cascante	3.992	8,94	SIN DATO	SIN DATO	3.999	6,49	2.330.337,27	66,88
0420000 Azagra	3.860	4,74	1.659.452,60	57,27	3.848	4,53	1.759.574,96	57,28
9050000 Beriáin	3.800	9,63	2.242.836,00	85,33	3.655	8,44	2.434.449,30	82,23
2500000 Bera	3.762	6,82	1.098.541,62	36,39	3.730	6,61	1.276.853,60	41,88
1760000 Murchante	3.732	2,13	650.860,80	23,02	3.753	2,34	708.228,63	27,60
1650000 Mendavia	3.717	5,59	1.483.008,66	48,53	3.796	5,26	1.625.143,52	53,09
2080000 Ribaforada	3.669	8,01	SIN DATO	SIN DATO	3.617	4,34	2.994.152,60	98,31
9060000 Orkoien	3.637	0,00	0,00	0,00	3.511	0,00	0,00	0,00
0760000 Cizur	3.499	8,75	1.467.025,73	72,63	3.366	19,91	1.607.938,20	76,10
1690000 Milagro	3.440	11,32	2.282.921,60	69,28	3.414	7,90	2.460.469,80	71,89
0780000 Cortes	3.349	3,72	673.416,92	19,33	3.405	3,91	791.798,70	21,33
0150000 Andosilla	3.031	11,37	2.642.062,08	123,57	3.039	10,54	2.837.666,25	133,40
2540000 Villafranca	2.973	8,74	3.157.415,19	83,83	2.997	10,85	3.395.630,97	85,28
1490000 Leitza	2.953	10,30	2.007.360,81	82,43	2.934	16,52	2.220.568,56	80,09
1630000 Marcilla	2.806	5,87	1.533.450,94	57,74	2.838	5,73	655.436,10	26,36
1530000 Lesaka	2.803	12,19	4.989.340,00	152,63	2.822	11,02	5.228.206,52	164,56
0650000 Caparroso	2.791	9,43	2.432.719,33	85,09	2.763	7,77	2.663.172,81	90,81
0060000 Ablitas	2.654	8,10	1.863.373,40	81,78	2.629	6,77	2.003.876,38	92,80
1040000 Falces	2.637	13,50	3.158.097,57	119,05	2.650	32,24	3.440.256,50	127,45
1080000 Fustiñana	2.592	9,15	1.886.561,28	86,90	2.598	9,37	2.038.105,02	96,22
0670000 Carcastillo	2.591	7,17	1.666.919,85	79,07	2.629	7,65	1.781.357,82	87,99
0190000 Aoiz	2.571	2,01	SIN DATO	SIN DATO	2.544	1,68	871.752,48	34,10
2490000 Valtierra	2.547	11,66	SIN DATO	SIN DATO	2.562	10,91	3.106.553,10	111,39
1070000 Funes	2.499	6,18	955.517,64	34,37	2.447	6,43	1.075.407,56	39,71
0840000 Etxarri-Aranatz	2.485	13,46	1.491.745,50	86,53	2.482	12,37	1.689.125,10	95,45
0320000 Arguedas	2.401	7,46	792.642,13	31,40	2.380	6,92	962.614,80	38,16
0570000 Buñuel	2.380	7,12	1.146.612,60	39,08	2.385	5,17	1.399.351,05	48,07
0980000 Esteribar	2.341	0,00	0,00	0,00	2.202	0,00	0,00	0,00

TOKI ENTITATE JENDETSUENEN ZORPETZE-MAILARI BURUZKO DOKUMENTUAREN GAINEKO AZALPENAK

Data: 12/12/26

1) Datu bateratu guztiak Idecal-en "Toki sekto-rea, erakunde autonomoekin bateratua" izenburuko txostenetik jaso dira.

2) Zor bizi bateratuak barruan hartzen ditu toki entitatearen abenduaren 31ko zorra, haren erakunde autonomoena eta toki entitateak %100ean partaidetutako sozietate publikoena.

3) Diru-sarrera arrunt bateratuek barruan hartzen dituzte toki entitatearen diru-sarrera arruntak eta haren erakunde autonomoenak, elkarren arteko balizko transferentziak kenduta.

4) Daturik gabe jartzen duenean, esan nahi du toki entitateak likidazioa bidali duela, baina kontuak ez, eta horregatik ez dagoela zorrari buruzko daturik.

5) **Iruñeko Udala** (2010000): mailegua hitzartzea baimentzeko txostenetik hartu da 2011ko zor bizi bateratua (ez ditu bidali 2011ko Kontuak).

6) **Zizurko Udala** (0760000): 2010eko zorpetze-maila (% 19,91) askoz handiagoa da 2011koa (% 8,75) baino, maileguaren amortizazioa 2010ean askoz handiagoa izan delako 2011n baino.

7) **Leitzako Udala** (1490000): 2010eko zorpetze-maila (% 16,52) askoz handiagoa da 2011koa (% 10,30) baino, muntako amortizazio bat egin dutelako 2010ean. Baina 2010ean beste mailegu bat hitzartu dutela kontuan hartzen bada (hau da, gastuetako 3. eta 9. kapituluak batu eta diru-sarreretako 9. kapituluak kentzen bada) % 11,61eko zorpetze-maila ateratzen da.

8) **Faltzesko Udala** (1040000): beste horrenbeste. 2010eko zorpetze-maila (% 32,24) askoz handiagoa da 2011koa (% 13,50) baino, muntako amortizazio bat egin dutelako 2010ean. Baina 2010ean beste mailegu bat hitzartu dutela kontuan hartzen bada (hau da, gastuetako 3. eta 9. kapituluak batu eta diru-sarreretako 9. kapituluak kentzen bada) % 11,35eko zorpetze-maila ateratzen da.

Galdera, mailegu hipotekarioak ordaindu ezinik dabiltzan herritarrei aholku ematen dieten funtzionarioek Nafarroako Foru Berriaren 493. legean ezarritako bidea aholkatu ahal izatearen komenigarritasunari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Manu Ayerdi Olaizola jaunak egindako galderaren erantzuna, mailegu hipotekarioak ordaindu ezinik dabiltzan herritarrei aholku ematen dieten funtzionarioek Nafarroako Foru Berriaren 493. legean ezarritako bidea aholkatu ahal izatearen komenigarritasunari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2012ko abenduaren 21eko 112. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak, mailegu hipotekarioak ordaindu

ezinik dabiltzan herritarrei aholku ematen dieten funtzionarioek Nafarroako Foru Berriaren 493. legean ezarritako bidea aholkatu ahal izatearen komenigarritasunari buruz, idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-12/PES-0186), hau erantzun du Gizarte Politiketako kontseilariak:

Hipoteketarako Bitartekotza Zerbitzuak helburu nagusia du finantza-entitateekin konponbideak negoziatzea, ustekabeen lanpostua galdu duten edo baliabide ekonomikoak murriztu zaizkien herritarrek hipoteka-zorra ordaindu ezinik eta beren ohiko etxebizitza galtzeko arriskuan daudenean. Konponbide horretarako ezinbesteko mekanismoa da adiskidetasunezko akordioak lortzen saiatzea.

Herritar bakoitzaren egoeraren arabera konponbideak proposatzen dira: zorraren ordainetan

etxebizitza ematea, zorra berregituratzea, gabealdiak, zorra barkatzea eta abar.

Zuk planteatzen duzun horrek, hots, Nafarroako Foru Berriaren 493. legean ezarritako bidea aholkatzeak, prozedura judizialari ekitera behar-tzen ditu herritarrak, eta galarazi egiten du alderdi-en artean adiskidetasunezko akordioa lortzen saiatzea. Auzi guztiek bezala, ondasun bat zorraren ordainetan ematen saiatzeko bide horrek badu bere kostua bai prozeduraren hasieran bai prozesuan zehar, eta kostu hori, hasiera batean, lehen-dik ere estu dabiltzan herritarren kargura izanen litzateke. Kostuak gorabehera, jakin behar duzu epailearen esku dagoela lege hori aplikatzea eta lege horren arabera epaitza ematea, epaileari

dagokiolarako zuk gomendatzen duzun prozedura tramitatzeako onartzea.

Etxebizitza ordainetan emateko adiskidetasunezko akordioa lortzeko ahaleginak huts egiten duenean, ordea, egokia izan liteke herritarrari bide hori gomendatzea, betiere azken bitarteko gisa, negoziatzeko aukera guztiak agortutakoan, tartean adiskidetasunezko akordioarena.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 15ean

Gizarte Politiketako kontseilaria: Íñigo Alli Martínez

Galdera, 1996tik 2011ra bitartean Ekonomia eta Gizarte Kontseiluan parte hartzeagatiko ordainsari gisa ordaindutako kopuruei eta 2012rako aurreikuspenei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana Beltrán Villalba andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 1996tik 2011ra bitartean Ekonomia eta Gizarte Kontseiluan parte hartzeagatiko ordainsari gisa ordaindutako kopuruei eta 2012rako aurreikuspenei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2012ko abenduaren 21eko 112. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak 1996tik 2011ra bitartean Ekonomia eta Gizarte Kontseiluan (EGK) parte hartzeagatiko ordainsari gisa ordaindutako kopuruei eta 2012rako aurreikuspenei buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-187), hau erantzun du Nafarroako Gobernuo Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguo kontseilariak:

Diru kopuru hauek ordaindu dira 1996tik 2010era arte:

1996. eta 1997. urteak

ENTITATEAK	PEZETAK
CEN	17.027.500
UGT	7.297.500
CCOO	4.865.000
ELA	2.432.500
LAB	2.432.500
ANEL	2.432.500
UCAN	2.432.500

1998., 1999., 2000. eta 2001. urteak

ENTITATEAK	PEZETAK
CEN	22.277.500
UGT	9.547.500
CCOO	6.365.000
ELA	3.182.500
LAB	3.182.500
ANEL	3.182.500
UCAN	3.182.500

2002. urtea

ENTITATEAK	EUROAK
CEN	133.890,31
UGT	57.381,56
CCOO	38.254,37
ELA	19.127,19
LAB	9.563,59
ANEL	19.127,19
UCAN	19.127,19

2003. 2004. 2005. 2006. eta 2007. urteak

ENTITATEAK	EUROAK
CEN	133.890,31
UGT	57.381,56
CCOO	38.254,37
ELA	19.127,19
LAB	19.127,19
ANEL	19.127,19
UCAN	19.127,19

2008. urtea

ENTITATEAK	EUROAK
CEN	137.237,60
UGT	58.816,13
CCOO	39.210,75
ELA	19.605,38
LAB	19.605,38
ANEL	19.605,38
UCAN	19.605,38

2009. eta 2010. urteak

ENTITATEAK	EUROAK
CEN	113.715
UGT	48.735
CCOO	32.490
ELA	16.245
LAB	16.245
ANEL	16.245
UCAN	16.245

2011. eta 2012. urteak: ez da ezer ordaindu.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 14an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko
Kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, “Audenasa. Merkataritza politika” eta “Audenasaren akzioak erosteko maileguaren amortizazioa” kontusailei dagokienez, 2005etik 2011ra ordaindutako kopuruei eta 2012ko ekitaldiko aurreikuspenei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana Beltrán Villalba andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, “Audenasa. Merkataritza politika” eta “Audenasaren akzioak erosteko maileguaren amortizazioa” kontusailei dagokienez 2005etik 2011ra ordaindutako kopuruei eta 2012ko ekitaldiko aurreikuspenei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2012ko abenduaren 21eko 112. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak Audenasari bere merkataritza-politika konpentsatzeko ordaindutako diru kopuruei eta sozietate horren akzioak erosteko mailegua amortizatzeko erabilitakoei buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-185), hau erantzun du Nafarroako Gobernuo Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguo kontseilariak:

Diru kopuru hauek ordaindu dira 2005etik 2012ra arte:

	100000 10000 4709 441100	114002 11300 9120 923100
	AUDENASA. Merkataritza-politika	AUDENASako akzioak erosteko maileguaren amortizazioa
2005	13.276.260,69	-
2006	12.874.980,04	-
2007	13.999.506,37	-
2008	15.906.421,64	-
2009	15.632.413,37	-
2010	15.429.137,90	-
2011	14.353.835,56	-
2012	14.319.559,33	0,00

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 16an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguo Kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, Pablo Sarasate Orkestrako gerentearen urteko soldatari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Aitziber Sarasola Jaca andreak Pablo Sarasate Orkestrako gerentearen urteko soldatari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2012ko abenduaren 10eko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitziber Sarasola Jaca andreak Pablo Sarasate Orkestrako gerentearen soldatari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez

(PES-00179), hau erantzun du Nafarroako Gobernu Kultureko, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

Pablo Sarasate Orkestrako gerentearen soldata enpresa publikoetako B mailako kudeatzaileen soldatarekin parekatuta dago. Nafarroako Gobernuaren 2011ko urriaren 19ko Erabakiak arautzen ditu enpresa publikoetako zuzendari kudeatzaileen eta zuzendaritzako langileen ordainsarietarako ezarritako irizpideak.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko urtarrilean

Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, Nafarroako Toki Administrazioa berrantolatzeke Foru Lege proiektu berrian fazeziek duten egoerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Aranoa Astigarraga andreak Nafarroako Toki Administrazioa berrantolatzeke Foru Lege proiektu berrian fazeziek duten egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko urtarrilaren 14ko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu parlamentu-taldeko foru parlamentari Miren Aranoa Astigarraga andreak Nafarroako Toki Administrazioa berrantolatzeke Foru Lege proiektuko determinazioek Nafarroako fazerietan izan dezaketen eraginari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-12/PES-188),

hau erantzun du Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariak:

Zein izanen litzateke Nafarroako fazezien egoera berria, foru lege proiektua onetsiko balitz?

Aipatutako proiektu arauemailean "Bardeako Komunitatea", "Erronkari Ibarreko Mankomunitatea", "Zaraitzu Ibarreko Unibertsitatea" eta "Aezkoa Ibarreko Komunitatea" tradiziozko batasunei soilik mantendu zaie toki entitatearen izaera, berariaz halaxe jaso izan direlako historian zehar Nafarroako antolamendu juridikoan, bai zuzenbide publikoan bai Nafarroako Zuzenbide Zibilaren Konpilazioan (43. legea).

Nolanahi ere, murrizketa horrek ez die inolako kalterik ekarriko "herrilurretako ondasunen titular edo administratzaile diren tradiziozko korporazioak" deitzen zaien gainerakoei, horiek jarraituko baitute zuzenbide publikoko entitateak izaten, toki entitatez (udal eta kontzejuak) osatuak, betidanik "ondasun-komunitate zatiezinetan" partekatuta,

ordenantzekin edo ordenantzarik gabe, administratu izan diren ondare-aprobetxamenduen egiazko titular edo kudeatzaileak diren aldetik.

Zein izanen litzateke nazioarteko aprobetxamenduko fazerien egoera, esate baterako Erronkariko Ibarrek Baretous-ekoarekin duenarena edo Bera, Etxalar, Azkaine, Biriatu, Urruña eta Sara-koa?

Nafarroako Gobernuak onetsitako testua duen Foru Lege proiektua onesteak ez die inola ere eragingen galderan aipatutako fazeriei, eta, horrenbestez, proiektuak ez ditu inola ere aldatuko fazeria horiek orain arte izan dituzten araubidea eta funtzionamendua.

Fazeriek aukera izanen al dute Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzak lortzeko, administrazio publiko izateagatik orain arte egiten zuten bezala?

Fazeriak toki entitatetzat ez hartzeak berez ezin du inola ere ekarri haiek kudeatzen dituzten ondare-ondasunen aprobetxamenduaren (baso, nekazaritza eta are ehiza aprobetxamendua) kontserbaziorako eta hobekuntzarako laguntzak jasotzeko fazeriek dituzten eskubideak galtzea, non eta ez diren aldatzen, bestelako inguruabarrengatik, Nafarroako Gobernuak eta beste administrazio batzuek onesten dituzten diru-laguntzen gaineko arauak.

Irizpide horrekin bat, Nafarroako Gobernuaren zenbait mendiren jabaria lagatzen duen martxoaren 16ko 8/1991 Foru Legean jasorik dagoenez, ondasun komunitatea (tradiziozko batasuna edo fazeria) dela medio kudeaketa partekatu edo ez,

betiere toki entitateak (udal eta kontzejuak eta, salbuespenez, Zaraitzu Ibarreko Batzar Nagusia) dira jabari publikoko mendien lagapen-hartzaileak eta eskubideen titularrak, eta elkarteak osatzen dute edo jada eratuta dagoen entitaterekin bat baliatzen dute berariaz ondasun horiek kudeatu eta aprobetxatzeko.

Azken batean, ondasunak kudeatzeko eta aprobetxamendua partekatzeko erabiltzen den tresnak (elkartea, tradiziozko batasuna edo dena delakoa) ez du lausotu edo ezkutatu behar toki entitateak direla aprobetxamenduen benetako titularrak eta, ondorioz, badutela zilegitasuna aprobetxamenduak hobetzeko onesten diren laguntza publikoen onuradunak izateko.

Zer administrazio prozedura baliatu beharko dute fazeriek, Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzak edo beste administrazio batzuenak lortu ahal izateko?

Nafarroako Gobernuak edo beste edozein administrazio publikok onesten dituen diru-laguntzak eskuratzeko, fazeria edo ondasun-komunitateek diru-laguntzen deialdietako oinarri arauemaileetan ezarritako administrazio prozedura bete beharko dute, edo laguntzak jaso ahal izateko berariaz ezartzen diren baldintzetan ezarritakoa.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko otsailaren 4an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, jakitekoa Osasun Departamentuak zer jarrera hartuko duen osasun txartela iraungitzeaz duten aseguruik gabeko pertsona etorkinei dagokienez.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Asun Fernández de Garaialde y Lazcano andreak egin-dako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakitekoa Osasun Departamentuak zer jarrera hartuko duen osasun txartela iraungitzeaz duten aseguruik gabeko pertsona etorkinei dagokienez. Galdera argitaratu zen 2013ko urtarrilaren 25eko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazcano andreak galdera egin du, idatziz erantzun dadin, jakiteko zer jarrera hartuko duen Osasun Departamentuak osasun txartela iraungitzeaz duten aseguruik gabeko pertsona etorkinei dagokienez (galdera egin du orain dela ez asko ohar bat bidali zelako, esanez txartela iraungi arren ez zutela beste bat bidaliko, praktikan txartela ez baita iraungitzen), (PES-00001). Hona hemen Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

Nolabait ere kontraesanean daude galderaren testua eta parentesi artean galderari buruz egin-dako oharra. Saiatuko naiz, hala ere, eskatutako informazioa ematen.

Elkarri lotuta egon beharrik ez duten bi kontzeptu bereizi behar ditugu:

Aseguramendurako eskubidea.

Berak zehazten du zein aseguratuen taldeetan dagoen pertsona, eta hori osasun arloko datu-basean jasotzen da, non erabiltzaile bakoitzari identifikazio pertsonaleko kode bat esleitzen baitzaio (CIPNA); eta pertsonen ematen zaien norbanakoaren osasun txartela (NOT) da haren adierazpen fisikoa.

Ongi dakizunez, 16/2012 Errege Lege Dekretua onetsitakoan etorkin irregularrei NOT txartela kendu zaie eta ezin dute horrelakorik eskuratu.

Ildo horretan erabaki zen 2012ko irailaren 1ean baja eman behar zitzaiela osasun arloko datu-basean.

Nafarroako Gobernuak araubide bat onetsi du berriaz, etorkin irregularrek, egoera jakin batzuetan, kostu ekonomikorik gabe jaso ahal izan dezaten osasun laguntza Osasunbidea - Nafarroako Osasun Zerbitzuaren bitartez, Nafarroako Gobernuaren aurrekontuen kargura.

Esan behar da, azkenik, NOT txartela izan edo ez, Nafarroan ezarri den unibertsalizazio araubiderako aukera izan edo ez, hori ez dela oztopo izanen etorkin irregularrek kasu guztietan Osasunbidea - Nafarroako Osasun zerbitzuaren laguntza jaso dezaten.

Txartel fisikoaren iraungitze data.

2012. urtera arte osasun txarteleak iraungitze data zuten. Aldian behin pertsona bakoitzaren egoera berrikusteko ezarri zitzaion iraungitze data NOT txartelari, baina dagoeneko badugu osasun arloko datu-basea, Nafarroako osasun zentro guztiek erabil dezaketena, eta denbora errealean jakin daiteke zein aseguratuen taldeetako den erabiltzailea. Beraz, iraungitze datak jada ez du baliorik eta horregatik 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera ez dira berritzen euskarri fisikoak, salbu eta datu pertsonalen bat, titulartasuna edo farmazia-prestazioaren mota aldatzen denean, txartela galtzen denean edo txartelak akatsen bat duenean; halakoetan bai, NOT berria ematen da. Azken batean, ez da txartel fisikoaren bidez egiaztatzen pertsonaren egoera, baizik eta osasun arloko datu-basetik jasotako informazioaren bidez.

Urriaren 20ko 117/2011 Foru Aginduak, Norbanakoaren osasun txartela arautzen duen Osasuneko kontseilariaren 1991ko urriaren 31ko Foru Agindua aldatzen duenak (2011ko azaroaren 22ko NAO), gauzatu du aldaketa hori, iraungitzeaz buruzko aipamena kenduz, norbanakoaren osasun txartelak jaso beharreko datua baitzen.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko otsailaren 7an

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, jakitekoa non egingen den Iruñeko DBHko ikastetxe berria.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Patxi Leuza García jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakitekoa non egingen den Iruñeko DBHko ikastetxe berria. Galdera argitaratu zen 2013ko urtarrilaren 21eko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Atxiki gabeko foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak galdera egin du, idatziz erantzun

dadin, Iruñeko DBHko ikastetxe berria non egingen den jakiteko (8-12/PES-00190). Hona hemen Nafarroako Gobernuako Hezkuntzako kontseilariaren erantzuna:

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe berria ekipamendutarako orube batean egingen da, Iruñeko 6. poligonoko 2009. eta 2016. lurzatietan.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko otsailaren 8an

Hezkuntzako kontseilaria: José Iribas Sánchez de Boado

Galdera, “Aralur, SL” enpresak gaur egun Ziordian garatzen jarraitzen duen jarduera etete aldera Nafarroako Gobernuak hartutako neurriei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Manu Ayerdi Olaizola jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, “Aralur, SL” enpresak gaur egun Ziordian garatzen jarraitzen duen jarduera etete aldera Nafarroako Gobernuak hartutako neurriei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2013ko urtarrilaren 21eko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak Ziordiko Aralur enpresaren egoerari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-12-/PES-00189), hau erantzun du Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio kontseilariak:

Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuko teknikariek Ziordiko ARALUR enpresako instalazioak ikuskatu zituzten 2012ko irailaren 4an.

Ikuskarpean egiaztatu ahal izan zen enpresak ez zituela betetzen bere instalazioei aplikatu beharreko araudiaren hainbat alderdi. Besteak beste:

– Ez zuen nabe berria irekitzeko lizentziarik.

– Ez zegoen atxikita ECOEMBESen hondakin-kudeaketarako sistema integratuari.

– Ez zuen hondakin-kudeatzaile izateko baimen eraginkorrik.

– Hondakin pila batzuk zituen lantegiaren inguruetan, eta ez zituzten betetzen lixibiazioa eragozteko eskatzen diren baldintzak.

Ez-betetze horiek ikusirik, Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak 2012ko urriaren 1eko ofizioan informazioa bidali zion departamentu honetako Idazkaritza Tekniko Nagusiari, abian jar zitezkeen bidezkoak izanez gero, zehatzeko eta ingurumen arloko legezkotasuna berrezartzeko akzioak.

2012ko azaroaren 12an, abenduaren 28ko 93/2006 Foru Dekretuaren 131.2 artikuluan xedatutakoa betez, Ziordiko Udalari jakinarazi zitzaion ARALUR enpresak ustez ez zituela betetzen Zior-

diko Udalak berak jarduera sailkaturako eman zion baimenaren zenbait alderdi. Jakinarazi zitzaion, gainera, abian jar zitzakeela zehatzeko akzio ego-kiak, edo bestela uko egin ahal ziela, eta berak uko eginez gero departamentu honek bidea zabalik izanen zuela zehapen akzioak garatzeko.

Azpimarratu behar da, beraz, Ziordiko Udalak zehatzeko akzioa baliatzeko aukera izan zuela, lehen eskuduna izateagatik, indarra duen araudian ezarritakoaren arabera.

Ziordiko Udalak 2012ko abenduaren 4an idazkia bidali zion Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuari. Idazki horretan uko egin zion zehatzeko eskumenari, eta eskatu zuen departamentu honek jardun zezala enpresa zehatzeko eta inguruetan hondakinak metatzen jarraitzea eragozteko.

Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiak emandako urtarrilaren 10eko 2E/2013 Ebazpenaren bidez zehapen espedientea hasi zen ARALUR enpresaren aurka, detektatu zitzaizkion arau-hausteengatik.

Kargu-orrian zehapen proposamen hau jaso da: hondakinak kudeatzeko baimena ezeztatzea

eta enpresaren instalazioak ixtea aldi baterako, erabat legeztatu arte.

Gainera, aldatutako errealitate fisikoa lehengoratu dadila eskatu da kargu-orrian. Horretarako mendebaldeko hondakin pila kendu beharko da, iragazgaiztu gabeko tokian dagoelako, eta hondakinak metatzen diren landetan arekak eta erretenak egin beharko dira lixibiatuak biltzeko, harik eta metatutako hondakinek sortzen dituzten lixibiatuak eraldatzeko prozesua ezarri arte.

Zehapen espedientea amaitu arte itxaron beharko da proposatutako zehapenak gauzatzeko, bai eta ukitutako aldea lehengoratzeko ere.

Azken ebazpena, dena dela, enpresari ez ezik Ziordiko Udalari ere jakinaraziko zaio, instalazioa bere lurraldean duen toki entitatea delako.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko otsailaren 11n

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko kontseilaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa, normaltasuna berrezartzeko eta 2013ko urtarrilaren 14tik 17ra bitarteko elurte eta euriteen ondorioz izandako kalteengatik udalei eta partikularrei ordaintzeko.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa, normaltasuna berrezartzeko eta 2013ko urtarrilaren 14tik 17ra bitarteko elurte eta euriteen ondorioz izandako kalteengatik udalei eta partikularrei ordaintzeko. Galdera argitaratu zen 2013ko urtarrilaren 25eko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdetu du, idatziz erantzuteko, 2013ko urtarrilaren 14tik 17ra bitartean izandako euri eta elur ekaitza eta horrek Nafarroako herri askotan eragindako uholdeak direla-eta, Nafarroako Gobernuak zer tresna tekniko, juridiko eta ekonomiko taxutuko dituen normaltasuna berrezartzeko eta eragindako kalteak udalei nahiz partikularrei ordaintzeko. Hona hemen Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko kontseilariaren erantzuna:

2013ko urtarrilaren 14an eta 17an izandako euri jasa eta uholdeei dagokienez, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak hainbat argibide eskatzeko dokumentua bidali die ukitutako udalei, nekazaritzako azpiegitu-

ra publikoetan eta toki azpiegituretan izandako kalteak zehazteko eta haien zenbatekoa kalkulatzeko.

Dokumentu horretan adierazten zaie uholdearen ondorioz kalteak jasan dituzten toki entitateek eta pertsonak une honetan laguntzak eskatzeko aukera dutela, Larrialdi edo hondamendien ondoriozko zenbait premiatarako Estatuaren diru-laguntzak arautzen dituen martxoaren 18ko 307/2005 Errege Dekretuan ezarritakoak, hain zuzen ere. Horretarako Gobernuaren Ordezkaritzara jo behar dute hilabeteko epean, uholdeak gertatu zirenetik hasita. Laguntza horiek ematen dira etxebizitzetan eta tresnetan izandako kalte materialetarako, kalte pertsonaletarako eta etxe-jabeen erkidegoek nahiz industria, merkataritza edo zerbitzu establezimenduek izandako kalteetarako.

Une oro aholkuak eta argibideak eman zaizkie hala eskatu duten udal eta pertsona ukitei, departamentu honetako unitateen bitartez eta, bereziki, Nekazaritzako Azpiegituren Zerbitzuan zentralizatu den arreta sistemaren bitartez.

Bestalde, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak oraindik ez daki Estatuako Administrazio Orokorak herri horiek sartuko dituen ala ez abenduaren 26ko 14/2012 Legeak, zenbait autonomia erkidegotan gertatutako baso sute eta bestelako hondamendi naturalek eragindako kalteak arintzeko presako neurriak onesten dituenak, eskaintzen dituen laguntzen aplikazio eremuan. Departamentua zain dago, eta ezezkoan, ukitutako eremu eta udalerrien zerrenda onetsiko du, bai eta horiek nekazaritzako azpiegitura publikoetako kalteak konpentsatzeko eskatu ahal izanen dituzten laguntzak ere.

Halaber, eremuen eta laguntzen zerrenda horretan sartuko dira, Estatuak ez baditu bere laguntzen eremuan sartzen, 2012ko urriko uholdeen ondorioz kalteak jasan zituzten herri batzuk, irailaren 7ko 25/2012 Errege Lege Dekretuaren aplikazio eremua handitu duen azaroaren 2ko 1505/2012 Errege Dekretuaren aplikazio eremutik kanpo gelditu direnak. Orain, Estatuako Administrazio Orokorrekin kudeaketa asko egin ondoren, zain gaude, hark noiz jakinaraziko digun herri horiei buruz azkenean hartu behar duen erabakia.

Aurrekoaz gainera, urtarrilaren 15etik 21era bitartean zenbait tokitan urak gainez egin du, dikeak apurtu eta urpean geratu dira labore lurra eta beste azpiegitura publiko eta pribatu batzuk. Departamentua harremanetan ari da eragindako udalekin, informazioa biltzeko eta, garaia denean, balorazioa eta txostena igortzeko Ebroko Ur Konfederazioari, bere eskumena erabiliz jardun dezan.

Beste alde batetik, Nafarroako Foru Komunitatean gertaturiko uholdeen, haizete indartsuen eta beste fenomeno natural batzuen ondoriozko hondamendiek kalteturiko pertsonen laguntza eta babesa emateari buruzko urriaren 10eko 11/2009 Foru Legeak laguntza-neurriak eta onurak ezartzen ditu uholde, haizete eta bestelako fenomeno naturalek eragindako pertsona fisiko eta juridikoentzat.

Foru lege horren 2. artikulua dioenez, une bakoitzeko Nafarroako Gobernuaren departamentu eskudunak emandako kasuan kasuko foru aginduaren bidez, kalteturiko udalerrien eta biztanleen zerrenda eginen da, bai eta horiek jaso ahalko dituzten laguntzen ere. Halaber, 3. artikuluan ezarrita dago foru agindu horretan jasoko direla foru legean aurreikusitako laguntzen eta/edo kalteordainen eskaerak aurkezteko epeak, betekizunak eta baldintzak.

Foru agindua egiten den lehendabiziko Gobernu Kontseiluan berretsi behar da.

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentua da gaiaren araberako eskumena duena, Nafarroako Foru Komunitateko lehendakariak emandako ekainaren 22ko 11/2012 Foru Dekretuaren arabera, bertan ezarri baitziren Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuen egitura eta departamentu bakoitzaren eskumenak.

Esan behar da goian aipatutako foru legean ezarritako laguntzak ondokoen osagarriak eta subsidiarioak izanen direla beti, eta hurrenkera honetan: sinatutako aseguru polizen konpentsazioak, bai eta Estatuan edo Europar Batasunean halako egoeretarako izan daitezkeen laguntzak ere.

Laguntzak zergen salbuespen edo itzulketak izan daitezke, jarduera ekonomikoaren gaineko eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergen nahiz lurraren kontribuzioarenak (gero Nafarroako Gobernuak toki entitateei konpentsazioa emanen die diru sarreren murrizketagatik), bai eta toki azpiegituretan kalteak jasan dituzten toki entitateentzako laguntzak ere.

Udalei eskatu zaie kalteen balorazioa eduki behar da laguntza horiek ematea onartu ahal izateko eta, horrenbestez, finantzaketarako behar diren kredituak esleitzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2013ko otsailaren 14an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko kontseilaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, sorkuntzarako, prestakuntzarako edota abian jartzeko kanpoan kontratatu behar izan diren publizitate, propaganda edo edonolako kanpainen eginiko gastuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Koldo Amezketa Díaz jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, sorkuntzarako, prestakuntzarako edota abian jartzeko kanpoan kontratatu behar izan diren publizitate, propaganda edo edonolako kanpainen eginiko gastuari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2013ko urtarrilaren 25eko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Koldo Amezketa Díaz jaunak publizitatearen arloko gastuari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-00002), hau erantzun du Nafarroako Gobernuak Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

Lehen eranskinetako taulan jaso dira publizitatearen, propagandaren edo era guztietako kanpai-

nen gastuen zenbatekoak eta Gobernuak departamentuen arteko banaketa, urtean urtekoak, 2003tik 2011ra bitarteko ekitaldietan kanpo-kontratazioa behar izan dutenenak, sormenerako, prestatzeko edo aurrera eramateko.

Eskatutako epean Nafarroako Gobernuak egin dituen publizitate ekintza guztiak jarri dira taula horretan, bai 6.001 eurotik beherakoak bai zenbateko hori gainditzen dutenak.

Nafarroako Gobernuaren eta haren erakunde autonomoen publizitate instituzionalaren kudeaketa (diseinua eta kontratazioa) publizitate agentzietan esleitzen zaie lehiaketan bidez: lehiaketa horietako bat abisuen publizitate arruntari dagokio (testu hutsez osatutako iragarkiak, besteak beste kontratazioen, desjabetze prozeduren edo laguntzak emateko deialdietako epeen berri ematen dutenak) eta beste bat sormenezko publizitateari, hau da, testuaz gain irudi edo diseinuren bat duten iragarkiei. Publizitatearen arloko kontratu guztiak urteroko bi lehiaketatan metatu dira, eta horrela deskontu handiak eta prezio onak lor daitezke publizitatearen kontratazioan eta diseinuan.

Galderan aipatutako aldian honako agentzia hauek jaso dituzte esleipenak:

URTEA	ABISUAK	SORMENA
2003	BLOCK SL	TECNA SL (*)
2004	CDC COMUNICACIÓN	UTE GAP'S MADRID - GAP'S PAMPLONA (**)
2005	GAP'S COMUNICACIÓN PAMPLONA	GAP'S COMUNICACIÓN PAMPLONA
2006	TECNA SL	GAP'S COMUNICACIÓN PAMPLONA
2007	TECNA SL	GAP'S COMUNICACIÓN PAMPLONA
2008	TECNA SL	GAP'S COMUNICACIÓN PAMPLONA
2009	EUROGAP	GAP'S COMUNICACIÓN PAMPLONA
2010	ZOSMAMEDIA SL	GAP'S COMUNICACIÓN PAMPLONA
2011	ZOSMAMEDIA SL	GAP'S COMUNICACIÓN PAMPLONA

(*) Lehiaketa publikoaren bidez esleitu ziren hiru kanpaina hauek izan ezik: PFEZaren aitorenaren kanpaina eta hauteskundeetan botoa ematea sustatzeko kanpaina, Intro Comunicación y Publicidad S.A.ri esleituak, eta tabakoaren kontsumoaren aurkako kanpaina, Suivant e Imaginarte agentziari esleituak.

(**) PFEZaren aitorenaren kanpaina izan ezik; horretarako lehiaketa egin zen berriaz eta Intro Comunicación y Publicidad S.A.ri esleitu zitzaion.

Komunikazio Zuzendaritza Nagusiaren publizitateari buruzko datu-basean 15.000 eurotik gorako publizitate jarduketak soilik jaso dira bereiz. Bigarren eranskineko taulan horien xehakapena ageri da.

Nafarroako Gobernuak egindako iragarki eta publizitate-kanpaina guztien zenbatekoak, 6.000 eurotik gorakoen eta beherakoen arteko bereizke-

tarik gabe, I. eranskinean ageri dira urtez urte eta departamentuen arabera.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko otsailean

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

I. ERANSKINA

PUBLIZITATE GASTUA 2003-2011. BITARTEAN. GUTZITZIKO ZENBATEKOAK URTEZ URTE ETARDI DEPARTAMENTUKA

	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	GUZTIRA
Ekonomia eta Laguntza	541.189	284.608	239.181	242.326	347.974	432.227	465.510	176.928	125.470	2.855.413
Lehendakaria, Justizia eta Barnea	337.921	52.188	39.664	42.464	181.950	119.783	14.382	85.749	4.838	878.939
Toki, Admin. eta Gobernuaren Bilerak	126.224	1.090.947	1.456.860	1.420.270	1.066.962					5.161.263
M. Ingurumena, Lur. Ant. eta Txebizitza	160.125	59.002	66.408	76.191	33.664					395.390
Hezkuntza eta Kultura (1)	461.640									461.640
Osasuna	215.802	291.511	145.741	264.056	288.985	254.509	102.236	32.832	10.506	1.606.178
Gizarte Ongizatea, Kirol eta Gaztedia	154.957	131.722	144.283	102.515	82.656					616.133
Herritarrak, Arraio eta Komunik.	357.978	165.878	174.586	264.313	237.351	285.924	262.580	119.887	7.510	1.876.007
Nekazaritza, Abeltzaintza eta Likadura	44.825	43.744	42.063	46.155	30.017					206.804
Industria eta Teknologia, Merkataritza	334.913									334.913
Turismoa eta Lanana (2)										
Kultura eta Turismoa		281.000	909.805	2.514.763	2.611.095	2.893.090	2.573.652	1.423.551	856.229	14.063.185
Hezkuntza		245.290	251.810	263.053	355.149	218.550	182.236	104.275	88.157	1.708.520
Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lanana		182.954	148.932	245.898	211.440					789.224
Erak. Harrem. eta Gobernuaren Bilerak					661.709	1.728.610	1.262.921	576.676	207.662	4.437.578
Toki Administrazioa					39.504	169.304	42.574	66.822	19.465	337.669
Landa Arapena eta Ingurumena					39.195	69.370	48.167	54.724	22.001	233.457
Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaia (3)					26.001	245.330	99.437	30.657	5.984	407.409
Lur. Antolamendua eta Txebizitza					5.454	24.643	45.761	18.477	12.400	106.735
Berrikuntza, Enpresak eta Enplegua					92.398	431.164	278.659	130.522	129.372	1.062.115
Lehendakaria, Admin. Publi. eta Barnea									51.602	51.602
Kultura, Turismoa eta Erak. Harrem.									730.901	730.901
Landa, Industria, Enplegua eta Ingurumena									73.602	73.602
Sustapena eta Txebizitza									5.212	5.212
GUZTIRA	2.735.574	2.828.844	3.619.333	5.482.004	6.311.504	6.872.504	5.378.115	2.821.100	2.350.911	38.399.889

(1) Kultura, loko 2003ko publikitate jarduketak sartu dira, nahiz eta lagar hartan loko horrek jada bazuen bere departamentua.
 (2) Turismo loko 2003ko publikitate jarduketak sartu dira, nahiz eta lagar hartan loko horrek jada bazuen bere departamentua.
 (3) Legegintzaldia datu zehazteko erabiltzen diren departamentu horrek beste datu bat hartu ditu: Gizarte Politika, Herdintasuna, Kirol eta Gazteria.

II. ERANSKINA

2003tik 2011. urte arteko publikitate-gastua. Publikitate-kanpainen ehakapena

	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	TOTAL
Konstituzioaren 20. art. urteurrena						47.987				47.987
Administrazio elektronikoa								69.923		69.923
Nafarroako Kulturako Urtearen 20. urteurrena				1.032.680						1.032.680
San Martin Oktoberaren 10. urteurrena						130.904				130.904
Energia-urrerazteko laguntzak						34.999				34.999
Bannerrak, logotipoak, prentsaren webguneetan (*)					19.331	62.948	119.966	146.710	139.855	488.810
Nafarroako bidetarako			213.637							213.637
Gizarte-erbitzuen zerbitzuak						165.381				165.381
Nafarroako kontzertuetarako						20.380				20.380
ExpoZaragozan										
Kontsumo-arduratsuen zerbitzuak	27.000	12.800	12.000							51.800
Gabonetan		52.000	53.500	45.700	62.457	99.832	78.500	119.912	110.888	622.789
Errentaren 20. urteurrena	359.666	179.998	203.266	202.099	299.960	209.954	178.361	117.369	123.741	1.874.414
Nafarroaren 100. urteurrena	58.000	84.032	73.038	79.959	120.734	122.118	218.934	97.774	30.891	885.480
Artista-gazteen topaketak						10.299	8.362			18.661
Ikasketen publikoetako eskolatzeari	44.319	48.100	13.806	16.224	20.320	19.771	18.975	40.927		222.442
Bizimodu-erabilerari						179.436				
"Guztionean" erakusketa				90.276						90.276
Tuterako 100. urteurrena				24.865						24.865
XX. mendearen 100. urteurrena						75.226				75.226
Puntuak/istailak						16.167	17.770			33.937

2003-2011 BITARTEKO PUBLIZITATE GASTUA. PUBLIZITATE KANPAINEN KEHAKAPENA

	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	TOTAL
Erriberriko Antzerki Klasiakoaren aialdia		42.371	56.309	66.606	73.058	68.626	41.340	410.571		
Nafarroako aialdiak	75.110	107.575								182.685
Botoa ustatzeko autonetak	120.120		129.897							250.017
Ezinduentzako laguntzen gaineko informazioa			42.678							42.678
Gazteriarburuzko legea eta Giren goitza berria						55.053	42.034			97.087
Euskara kateko matrikulazioa ubiartean	9.762	13.881								23.643
NAOren konfigurazio berria Interneten			20.311							20.311
Iruñeko autobus geltoki berria			34.200							34.200
848 telefono aurrez baki berria	150.018									150.018
LTD e-lebista skaintza			22.240				158.527			180.767
Krisiaren aurkako lana						219.187	338.059			590.501
Etxetresna elektrikoak				42.304	47.446	48.950	12.325			151.025
Escola Jazarpenaren prebentzioa			40.663							40.663
Gazteen alkohol kontsumoaren prebentzioa				117.295						117.295
Tabako kontsumoaren prebentzioa	119.858	168.000								287.858
Nerabeen iroga kontsumoaren prebentzioa					137.029					137.029
Minbiziaren prebentzioa		18.826								18.826
Baso suteen prebentzioa		35.692	24.500	29.151	19.653					108.996
IKTetarako irribiltzeko programa					34.564	33.114				67.678

2003-2011 TARTETOKO PUBLIZITATE GASTUA. PUBLIZITATE KANPAIEN KEHAKAPENA

	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	TOTAL
Familia harreraren programa		33.000								33.000
Adinekoentzako baineetxeen programa	8.520									8.520
Cultur programak	8.218					12.843				21.061
Nafarroaren sustapena		82.016	78.722	73.171	101.672	49.375	49.375			434.331
Gobernuaren digitalpen funtsaren sustapena					16.407	18.940				41.510
Lanbide heziketaren sustapena	54.460	73.320	77.373	79.353	81.328	106.067	82.867	60.339	35.417	650.524
Nafarroako Gobernuaren web-tariaren sust.		179.330								179.330
Irakasleen lanaren gorapamena					56.597					56.597
Bide segurtasuna		49.000	69.600	85.728	179.246	74.185				457.759
Merkataritzaren atea		15.586								15.586
Immigrazioaz sentikortzea					199.945		173.993	43.372	156.585	723.802
Doneakue bidetako informazio telefonoa		24.490								24.490
012 tokiko informaziorako telefonoa	63.000	60.000	72.616	71.076						266.692
Nafarroako Gobernuaren zerbaki telefono gidan		49.573	57.152	68.185	54.684	77.955	71.217			378.766
Turismoa	300.415	428.235	581.595	1.203.000	2.793.768	2.936.176	2.558.156	1.364.030	1.152.345	13.317.720
Sant Frantzisko										
Xabierkoaren mendeurrena				171.086						171.086
Foruaren Hobekuntzaren XXV. urteurrena					102.040					102.040
GUZTIRA	1.398.466	1.701.573	1.627.720	3.510.701	4.640.873	5.050.212	4.202.210	2.114.945	1.831.989	26.078.689

* Uskarri horiek kontratatzen dira bainba kimenei doha publikitate kanpainaren bala kunderako. Ahal diren arnaka jasotzera, haien bolumen ekonomiko kontuan hartuta.

Galdera, Gobernuak egin dituen gestioei buruzkoa, Parlamentuak eginiko eskari bat betetze aldera. Horren bidez, eskatzen zen tresna informatiko bat finantzatu eta garatzeko, kontabilitate- nahiz aurrekontu-kontrolakoarekin uztarturik egon beharko litzatekeena, toki korporazioei beren udal inbentarioak egitea ahalbidetzekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Koldo Amezketa Díaz jaunak honako galdera hau egin zuen: “Galdera, Gobernuak egin dituen gestioei buruzkoa, Parlamentuak eginiko eskari bat betetze aldera. Horren bidez, eskatzen zen tresna informatiko bat finantzatu eta garatzeko, kontabilitate- nahiz aurrekontu-kontrolakoarekin uztarturik egon beharko litzatekeena, toki korporazioei beren udal inbentarioak egitea ahalbidetzeko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Koldo Amezketa Díaz jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko otsailaren 4ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Koldo Amezketa Diaz jaunak galdera egin du (8-3/PES-00008), Gobernuak egin dituen gestioei buruzkoa, 2012ko martxoaren 8an Nafarroako Parlamentuak onetsitako ebazpena betetze aldera; horren bidez, “Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du tresna informatiko bat finantzatzera eta garatzera egokien irizitako informatika-garapeneko enpresa baten bidez - Animsaren bidez, esaterako-, toki korporazioei ahalbidetze aldera modu homogeneo batez egin ahal izatea beren udal inbentarioak eta urteko mantentzea; tresna hori kontabilitate- nahiz aurrekontu-kontrolakoarekin uztarturik egon beharko litzateke”. Hona hemen Nafarroako Gobernu Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioari kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako toki entitateen legezko betebeharra da ondasun eta eskubideen inbentarioa edukitzea. Izan ere, beren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideen inbentario baloratua egin behar dute eta etenik gabe eguneratu, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 113. artikuluan ezarrita dagoenez.

Udalbatzari dagokio inbentarioa onestea, urtero zuzentzea eta, udalbatza berritzen denean, inbentarioa egiaztatzea.

Legearen agindu hori jaso zen urriaren 18ko 280/1990 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Ondasunei buruzko Erregelamenduan. Bertan garatu dira Nafarroako toki entitateen ondasunen inbentarioen gaineko arauak.

Bestalde, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeak, 237. artikuluan, toki entitateen kontabilitatea hainbat helburutarako antolatuta dagoela dio, besteak beste “inbentarioa eta ibilgetu material, ez-material eta finantzarioaren kontrola” ahalbidetzeko.

Kontrol hori egiteko, Kontabilitate Instrukzio Orokorraren bidez (irailaren 21eko 272/1998 Foru Dekretua) arautzen diren entitateetan Kontabilitate Instrukzio Orokorra erabiltzen da, eta Aurrekontu Kontabilitateari buruzko Jarraibidearen bidez (irailaren 21eko 273/1998 Foru Dekretua) arautzen diren entitateetan, berriz, Inbentarioaren Aldaketen Eguneroko Liburua.

Nafarroako Gobernuak ondoko jarduketa hauek egin ditu udal inbentarioei buruz:

I.- Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra ezartzeko eta Ondasunei buruzko Erregelamenduan xedatutakoa betetzeko, 1989-1992 bitarteko urteetan Toki Administrazioari Departamentuak erabaki zuen Nafarroako toki entitateen inbentarioak egin behar zirela, eta horretarako, 210 milioi pezetako inbertsio metatuarekin eta toki entitateei batere kosturik sortu gabe, Nafarroako 500 biztanletik gorako udal eta kontzeju guztien ondasun eta eskubideen inbentarioak egiteko lanak kontratatu zituen, eta, horrenbestez, hura kudeatzeko programazio informatikoa eman zen eta hartzaileentzako informazio jardunaldiak antolatu ziren.

Halaber, aurrean esandako jarduketan ildotik, Toki Administrazioari Departamentuak, Nafarroako Gobernu Landa Garapeneko Toki Administrazioari zuzendari nagusiaren 1993ko maiatzaren 3ko 263. Ebazpenaren bitartez, 68.900.000 pezetako gastua onetsi zuen, Trabajos Catastrales S.A. enpresak “Udal ondasunen inbentarioa” izeneko lana egin zezan.

Lan hori amaitu eta 1994ko martxoaren 29an gainerako toki entitateei (130 udal, 156 kontzeju eta 3 batzar) inbentarioak eta horiek eguneratzeko informatika-programak eman zitzaizkienean, erabat bete zen aipatutako erabakiaren helburua, toki entitate bakoitzari bere ondasun eta eskubideen inbentarioa eman baino lehenago.

II.- Goian azaldutako jarduketak zirela-eta Toki Administrazioiko Departamentuak toki entitateentzako zirkularrak egin zituen, gogora ekartzeko Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 113. artikuluan xedaturikoa bete behar zutela, eta, ondorioz, eman zitzaizkien inbentarioak onetsi, mantendu eta eguneratzeko prozedura-jarduketak egin behar zituztela.

Orain arte toki entitate batek ere ez dio Nafarroako Gobernuari berriarazko ohar edo eskaerarik aurkeztu arlo horretako bere legezko betebeharretan lagun diezaion.

III.- Hala ere, toki entitateentzako ekonomia eta kontabilitate arloetako aholkularitza lanetan, departamentu honek laguntza teknikoak eman ohi die toki entitateetako langileei, inbentarioen liburu-etan atzematen diren akatsak zuzentzeko, ekitaldi bakoitzeko aurrekontu-exekuzioan jasotzen diren kontabilitate-idazpenen haritik. Akats horiek ager daitezke aurrekontu-ekitaldietako kontuen espedienteak berrikusten direnean edo Kontuen Ganberak oharren bat egiten duenean toki entitateen egoera ekonomikoa aztertu ondoren.

IV.- Azaldutako jarduketaz gain, Departamentuan beti izan da kezka eta prestasuna toki entitateen ondasun eta eskubideen inbentarioen kudeaketa hobetzeko ekimenetarako. Ekimen horietan, toki entitateetako teknikariek batera, azterketa eta hausnarketa taldeetan parte hartu izan da proposamen teknikoak taxutze aldera.

Dokumentaturik dagoen azken esperientzian, 2006an, lantalde bat sortu zen orduko Toki Administrazioiko Departamentuak bultzatuta; toki entitateetako langileek, NUKFek, Kontuen Ganberak eta Animsa sozietateak parte hartu zuten, eta amaieran azterketa funtzional bat egin zen, honako helburu hauei erantzunen dien aplikazio informatikoa-ren sorburu izan litekeena:

- Udal inbentarioa berrikusi, berritu eta eguneratzeko jarraibideak ezartzea.
- Udal ondareekin zerikusia duten udal egintza eta erabakiak inbentarioetan islatzeko prozedurak ezartzea.
- Udal ondarea kudeatzeko tresna eraginkorra izan den ondasun-inbentarioa taxutzea lortzea.

Toki kontabilitateko aplikazio informatikoak Nafarroan ezartzeari dagokionez, gaur egun Nafarroan diharduten hainbat enpresak eskaintzen dituzte gure toki entitateen kontabilitate orokorrerako eta aurrekontu-kontabilitaterako aplikazio informatikoak, eta Nafarroako toki ogasunen aurrekontu- eta kontabilitate-egituraren arau-garapenerako homologazioak banakako kontratazio-rako bidea eman die.

Hori guztia kontuan harturik, aplikazio informatiko horien ezarpenean badaude desberdintasunak, nola ez, toki entitateek autonomia dutelako beren eskumena erabiltzeko beren interesen kudeaketan, zeinek bere premien arabera.

Informazio-eskaeran aipatu duzun parlamentu-ebazpenaren balorazioari dagokionez, Nafarroako Gobernuaren betebeharra da Nafarroako toki entitateekin lankidetzan aritzea, beren ondasunen inbentarioen antolaketa egokia eta eguneratze etengabea bermatuko dizkieten irizpideak eta baliabide edo tresnak eskaintzeko, eta, horrenbestez, ebazpen hori Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarentzat onargarria izan liteke.

Ebazpenean eskatzen diren jarduketak gorabehera, ordea, ez da sekula ulertu behar eskumenen erabilera legitimoan inor subrogatzen denik, ez dagoelako jasorik ez haiek ez haien ordezkariak aipatutako parlamentu-ebazpenean proposatutako jarduketak eskatu dizkietenik Gobernuari.

Onetsitako parlamentu-ebazpena betetzeko oztopo handienak dira batetik aurrekontu baliabiderik eza eta bestetik lehenasunezko zat jotzen diren beste aurreikuspen batzuk ukitu gabe gabezia horri aurre egiteko zailtasuna. Ezinezkoa da, beraz, hura gauzatzeko konpromisoa hartzea.

Azaldutakoa oinarri, eta kontuan harturik onetsitako ebazpenean eskatzen den lankidetzaren onargarria izan litekeela, oro har, Nafarroako Toki Administrazioarentzat, eta gogoan izanik toki kudeaketarako tresnen hobekuntza orok berekin dakarrela haien eskumeneko zerbitzuen hobekuntza, kontseilari honek jasorik utzi nahi du honako jarduketa hauek lehenbailehen egitea erabaki duela:

1.- Informazioa eman dezaketenei galdetzea zenbateko kostu ekonomikoa izanen lukeen tresna informatiko egoki bat garatzeak, zeina, erantzun honetan aipatu den 2007. urteko azterketa funtzionalean oinarrituta, Nafarroako toki entitate guztiek erabili ahal izanen baitute inbentarioak behar bezala jasotzeko eta ibilgetu materiala, ez-materiala eta finantzariora kontrolatzeko.

2.- Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari ekimen horren berri ematea, eta, Toki Araubideko Foru Batzordearen baitan, toki entitateen ordezkariari eskatzea jarrera har dezatela onetsitako parlamentu-ebazpenaren arrazoiei eta xedeei buruz.

3.- Parlamentu-ebazpena betetzeak izanen lukeen eragin ekonomikoa ezagutzen denean, eta,

betiere, Nafarroako Foru Batzordean toki entitateek dituzten ordezkariak aldeko iritzia agertuz gero, egungo aurrekontu-esparruan proiektuari ekitea bideragarria ote den aztertzea.

Iruñean, 2013ko otsailaren 25ean

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, Foru Administrazioako goi kargudunei antzinasun sari gisa ordaindutako kopuruari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eloy Villanueva Cruz jaunak Foru Administrazioako goi kargudunei antzinasun sari gisa ordaindutako kopuruari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko otsailaren 4ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrereko foru parlamentari Eloy Villanueva Cruz jaunak Foru Administrazioako goi kargudunei antzinasun sari gisa ordaindutako kopuruari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-005/13), hau erantzun du Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilariak:

1. 2012rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legeko 8. artikulua zortzigarren idatz-zatian xedatutakoa

betez 2012ko ekitaldian ordaindutako diru-kopurua.

Foru Komunitateko Administrazioako eta haren erakunde autonomoetako behin-behineko langileei, funtzionario ez direnei, antzinasun sari gisa guztira 7.358,84 euro ordaindu zaizkie 2012. urtean.

2. 2012ko nominan aipatu idatz-zati horren arabera dirua jaso duten Foru Administrazioako goi karguen zerrenda banakatua. Zerrenda horretan izenak, karguak, ordaindutako zenbatekoak eta antzinasun-saria aplikatzeko kontuan hartu diren behin-behineko lanpostuak zehaztea eskatzen da.

Funtzionario ez diren eta 2012. urtean antzinasun sari gisa diru-kopuruak jaso dituzten goi kargudunen zerrenda banakatua dakarren taula erantsi da. Bosturtekoak kalkulatzeko kontuan hartu da haietako bakoitzak zenbat denbora egin duen behin-behineko lanpostuetan lanean, hala Foru Komunitateko Administrazioan nola beste administrazio batzuetan. Aldez aurretik denbora hori egi-ztatatu egin da.

Iruñean, 2013ko otsailaren 25ean

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilaria: F. Javier Morrás Iturmendi

Galdera, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoan aurreikusitako Lankidetzaren Batzordeak eginiko bilerei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoan aurreikusitako Lankidetzaren Batzordeak eginiko bilerei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2013ko otsailaren 4ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak Lankidetzaren Batzordeari buruzko parlamentu-galdera egin du idatziz erantzun dadin (PES-006/13), eta informazio hori erantsita bidali du Lehendakaritzara, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilariak.

Iruñean, 2013ko otsailaren 25ean

Lehendakaritzara, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilaria: F. Javier Morrás Iturmendi

(Oharra: Aipatutako eranskina eskuragarri dute foru parlamentariak, parlamentu-kudeaketako Ágora sisteman.)

Galdera, Estatuaren eta Nafarroaren arteko Transferentzien Batzordeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak Estatuaren eta Nafarroaren arteko Transferentzien Batzordeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko otsailaren 4ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak Transferentzien Batzordearekin zerikusia duten zenbait gairi buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-13/PES-00007), hau erantzun du Lehendakaritzara, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilariak:

Lehen: Estatuaren zerbitzuak Nafarroako Foru Komunitateari transferitzeko arauak ezartzen dituen abenduaren 19ko 2356/1984 Errege Dekretuak arautzen du Transferentzien Batzordearen osaketa.

Bigarrena: Nafarroako Gobernuak gaur egun ez dauka aurreikusita Transferentzien Batzordearen bilerarako deialdirik egitea.

Hirugarrena: aurreko puntuan emandako informaziotik ondoriozta daitekeenez, Nafarroako Gobernuak une honetan ez dauka aurreikusirik inolako aztergairik proposatzea Transferentzien Batzordeari.

Laugarrena: honetatik bereiz postaz bidalitako euskarri elektronikoan, Transferentzien Batzordeak 1985etik 1996ra bitartean egindako 76 bileraren aktak daude.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduen 194. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2013ko otsailaren 25ean

Lehendakaritzara, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilaria: F. Javier Morrás Iturmendi

(Oharra: Aipatutako eranskina eskuragarri dute foru parlamentariak, parlamentu-kudeaketako Ágora sisteman.)

Galdera, Nortasun Agiri Nazionala eta gidabaimena Nafarroako bi hizkuntza ofizialetan egiteari buruz Nafarroako Parlamentuak onetsitako erabakia Espainiako Gobernuak betetzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Txema Mauleón Echeverría jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nortasun Agiri Nazionala eta gidabaimena Nafarroako bi hizkuntza ofizialetan egiteari buruz Nafarroako Parlamentuak onetsitako erabakia Espainiako Gobernuak betetzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2013ko otsailaren 11ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Txema Mauleón Echeverría jaunak Nortasun Agiri Nazionala eta gidabaimena bi hizkuntza ofizialetan egiteari buruz Nafarroako Parlamentuak onetsitako erabakia Espainiako Gobernuak betetzeari buruz idatziz erantzuteko

egindako galderari dagokionez (8-13/PES-00010), hau erantzun du Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilariak:

Nafarroako Gobernuak ez daki Estatuak prozedura burututa edo hasita ote daukan Nafarroako Parlamentuaren erabaki hori betetzeko, zeinaren bidez Espainiako Gobernuak premiatzen baita legeak ezarritakoa bete dezan Nortasun Agiri Nazionala eta gidabaimena Nafarroako bi hizkuntza ofizialetan egiteari dagokionez.

Nafarroako Parlamentuaren erabaki hori Espainiako Gobernuari zuzendu zaio berariaz, eta bertan Nafarroako Gobernuari ez zaio agindu inolako kudeaketarik egiteko.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 194. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2013ko martxoaren 1ean

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilaria: F. Javier Morrás Iturmendi

Galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak aurreikusita ote duen maila goreneko bilerarik egitea Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuarekin.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, jakitekoa Nafarroako Gobernuak aurreikusita ote duen maila goreneko bilerarik egitea Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuarekin, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko urtarrilaren 25eko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak EAEko

Gobernuarekin bilerak egiteari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-00003), hau erantzun du Nafarroako Gobernuak Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

EAEko ordezkariekin bilerak eginen dira, Espainiako gainerako autonomia erkidegoekin, batik bat gurekin hitzarmenak sinatu dituztenekin, egiten diren bezala.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko otsailean

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, ospitaleko sukaldeen kudeaketa pribatizatuaren ondorioei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak ospitaleko sukaldeen kudeaketa pribatizatuaren ondorioei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko otsailaren 11ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak galdera hau egin du, idatziz erantzun dadin:

“1.- Ospitaleetako sukaldeen pribatizazioa gauzatu denetik, hainbat eta hainbat janari itzuli da sukaldera, ospitaleratutako pertsonak ez baitute

jan. Nork hartuko du itzulitako janariaren kargua? Osasunbideari fakturatuko zaio otordu horietako kostua?

2.- Zer egin du edo zer egingo du Osasunbideak sukaldeen kudeaketa pribatizatu aurretik janaria prestatzeko erabiltzen zen material horrekin guztiarekin? Enpresa pribatuak erosi du edo Osasunbideak bere eskura jarri du doan? Zenbatean baloratzen da bere kostua?” (PES-00015). Hona hemen Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

1. Ospitaleetako sukaldeen pribatizazioa gauzatu denetik, hainbat eta hainbat janari itzuli da sukaldera, ospitaleratutako pertsonak ez baitute jan. Nork hartuko du itzulitako janariaren kargua? Osasunbideari fakturatuko zaio otordu horietako kostua?

Nafarroako Ospitaleguneko elikadura zerbitzuen kanpokotzeari dagokionez, eskatutako kalitate baldintza guztiak (jakiak egoki prestatu eta plateratzea, tenperatura, dietaren osaera) betetzen

dituzten otorduak soilik fakturatuko dira. Ez dira fakturatuko, beraz, otordu akastunak, baldintza teknikoan agirian ezarritako betekizunak betetzen ez dituztenak.

2. Zer egin du edo zer egingo du Osasunbideak sukaldean kudeaketa pribatizatu aurretik jantzia prestatzeko erabiltzen zen material horrekin guztiarekin? Enpresa pribatuak erosi du edo Osasunbideak bere eskura jarri du doan? Zenbatean baloratzen da bere kostua?

Baldintza teknikoan agiriaren 13. atalean ("Sukaldea eta gune osagarriak instalatu eta muntatzea") ezarrita dagoenez, adjudikazio-hartzaileak lehendik dauden makina eta altzari guztiak edo horietako batzuk erabili ahal izanen ditu. Hauxe dio:

Unitate kudeatzaileak adjudikazio-hartzailearen esku jarriko ditu VI. eranskinean zehaztutako makina eta altzariak. Zerbitzua hasterakoan behin betiko inbentarioa egingen da.

Adjudikazio-hartzaileak onartu edo baztertu ahal izanen ditu material horiek guztiak edo horietako batzuk. Unitate kudeatzaileak kendu egingen ditu baztertutako materialak.

Onartutako materialek, kontratua amaitzen denean, erabiliaren erabiliz ohiko balio-galera iza-

nik ere, kontserbazio eta funtzionamendu egoera onean egon behar dute. Beraz, adjudikazio-hartzaileak prebentziorako eta zuzenketarako mantentze lan egokiak egin beharko ditu.

Hau da, lehenengo eta behin, enpresa adjudikazio-hartzaileak esan behar du zein material erabiliko dituen.

Enpresak erabiliko ez dituen materialekin Osasunbideak beste eskari batzuk aseko ditu: antzeko instalazioak dituzten Nafarroako Gobernuaren beste osasun etxe batzuenak eta GKE edo gisako erakundeak, horiek dagoeneko adierazi baitute erabilgarri geratzen den materiala baliatu nahi dutela.

Tresneria horren balioari dagokionez, kontabilitatean amortizatuta dagoen materiala da, eta, beraz, hura erabiliko duenak ematen dion balioa izanen du. Osasunbidea - Nafarroako Osasun Zerbitzuan ahalik eta erabilgarritasun handiena ematen saiatuko gara, beste zentro publiko batzuek eta GKEek agertu diguten interesa aintzat hartuta.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko otsailaren 27an

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

